

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2023KO MARTXOA

Euskal AEko industria-jarduerak % 6,2 egin du gora 2023ko martxoan


2023ko lehen hiruhilekoaren balantzea industria-produkzioaren indizearen % 1,5eko hazkuntzarekin itxi da

Euskal AEko industria-produkzioa 2023ko martxoan aurreko urteko hil berekoa baino % 6,2 handiagoa izan da, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek prestatutako datuen arabera. 2023ko lehen hiru hiletako metatuak ere % 1,5eko hazkuntza-tasa izan du.

Martxoan, aurreko hilarekin –2023ko otsaila– erkatuta, Euskal AEko industria-jarduerak % 2,3 egin du gora, urtaro-ondorioak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helmuga ekonomikoen arabera, 2023ko martxoko indizeak, 2022ko martxokoarekin alderatuta, % 8,8 egin du gora *Bitarteko ondasunetan*; hartan sartzen dira metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Bestalde, *Ekipo-ondasunek* % 6,1eko gorakada izan dute. Haien artean honako hauek daude: motordun ibilgailuen fabrikazioa; lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza, eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigintza.

Kontsumo-ondasunek ere urte arteko portaera positiboa izan dute 2023ko martxoan; sektoreak % 3,4ko hazkuntza izan du. Hazkuntza hori *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* portaeraren ondorio izan da, zeinak % 4,8 areagotu baitu ekoizpena. Haietan, honako jardura hauek sartzen dira: elikagaien prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa; farmaziako produktuak, eta arropen jantzigintza. Bestalde, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* ekoizpenak % 2,7 egin du behera. Haietan sartzen da, besteak beste, altzari eta etxeko tresnen fabrikazioa.

Energiak, azkenik, % 2,0 egin du behera urte arteko tartean, 2023ko martxoan. Sektore horretan, energia elektrikoaren ekoizpena eta hornikuntza eta petrolio-fintzea sartzen dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Martxo 2023

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	6,2	1,5	2,3
Araba/Álava	9,7	4,9	1,6
Bizkaia	6,0	0,2	4,6
Gipuzkoa	4,3	0,8	0,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	3,4	2,9	0,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-2,7	1,9	-5,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,8	3,2	2,4
Ekipo-ondasunak	6,1	3,4	2,6
Bitarteko ondasunak	8,8	3,2	3,0
Energia	-2,0	-10,4	4,0

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarritik behatutako azken hilerako arte metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2023ko Maiatzaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2023ko martxoan urte arteko hazkuntza handiena izan dutenak honako hauek izan dira: *Garraio-materiala* (% 18,6), *Kautxuak eta plastikoak* (% 12,0) *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industrietako produktuak* (% 6,2). Urte arteko tartean produkzioaren jaitsiera izan duen sektore bakarra, berriz, *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* izan da (% 6,4 egin du behera).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Martxoa 2023

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	6.2
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1.6
Kautxua eta plastikoak	12.0
Metalurgia eta produktu metalikoak	5.2
Materiala eta tresna elektrikoak	1.4
Makineria eta tresneria	5.1
Garraio-materiala	18.6
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-6.4

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeiko Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2023ko Maiatzaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2023ko martxoan, industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan. Produkzioaren hazkuntza % 9,7koa izan da Araban, % 6,0koa Bizkaian eta, azkenik, % 4,3koa Gipuzkoan.

2023KO LEHEN HIRUHILEKOAREN BALANTZEA

Urteko lehen hiru hiletako metatuan, industria-produkzioaren indizeak % 1,5eko hazkuntza izan du, Ekipo-ondasunen eta Bitarteko ondasunen ondorioz (% 3,4 eta % 3,2, hurrenez hurren). Kontsumo-ondasunek ere bilakaera positiboa izan dute, % 2,9koa, eta Energiak, berriz, -% 10,4ko tasa negatiboa izan du lehen hiruhilekoan eta, hala, guztizkoaren hazkuntza % 1,5era arte mugatu du.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren **% 89,75eko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62